

## OSAKIDETZAREN LANBIDE-GARAPENKO EZOHIKO DEIALDIA

### OHIKO GALDERAK

#### 1. Nola egin dezaket eskaera?

Parte-hartzaile bakoitza **lanbide-garapeneko aplikazio informatikora** sartu ahalko da URL honen bidez: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>. Lanbide-garapenari buruzko atal bat gehitu da intranetean eta Osakidetzaaren webgunean. Webgunetik bertatik, erabiltzaileek bi modu izango dituzte aplikaziora sartzeko:

- **Osakidetzako profesionalak:** NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).
- **Osakidetzako profesionalak eta profesional ohiak:** IZENPEren bidez (Euskadiko identifikazio elektronikoa), BakQ, ziurtagiri digitalak edo CI@ve erabilia.

#### 2. Zein da eskaera egiteko epea?

**2022ko ekainaren 27ko 9:00etatik 2022ko uztailaren 22ko 14:00etara.**

#### 3. Beste osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar al dut?

Lanbide-garapenaren maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak zenbatzeko, **2021eko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak hartzen dira kontuan.** Hona hemen bete beharreko jarraibideak:

Beste osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batzuetan zerbitzuak eman badituzu:

- CV aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta badaude, ez duzu dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharko.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta badaude, baina ez baduzu entregatu/aurkeztu emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua, eskaera egiteko epearen barruan aurkeztu beharko duzu zure zerbitzu-erakundeko Langileen Sailean.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta ez badaude, erregistratu beharko dituzu eta emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua entregatu/aurkeztu beharko duzu eskaera egiteko epearen barruan, zure zerbitzu-erakundeko Langileen Sailean.

Zerbitzu aktibokoa ez den beste egoeraren batean bazaude, edo CV aplikaziorako sarbiderik ez baduzu, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan edo aurkeztu beharko duzu dokumentazio hori, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako bideen bitartez.

#### 4. Zer da maila-esleipenaren behin-behineko proposamena?

Eskaera egiteko epea hasten den egunean eskuragarri dauden datuetan oinarrituta, **Osakidetza maila-esleipenaren behin-behineko proposamena egingo** die deialdi honetan parte hartzeko baldintzak eta maila lortzeko zerbitzu-urteak betetzen dituzten profesionaleri. **Proposamena lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan kontsultatu behar da.**

Aurkeztutako proposamenari dagokionez, bi aukera daude:

- Esleipenaren behin-behineko **proposamena** berariaz **onartzen badut** eta proposamen horrekin **ados nagoela berresten badut, esleipena behin betikoa izango da.** Kasu honetan, **ez dut dokumenturik aurkeztu beharko**, ados nagoelako jasotako datuekin eta Osakidetzaren proposamenarekin.
- Maila-esleipenaren behin-behineko **proposamena onartzen ez badut**, Osakidetzaren proposamena zuzena ez dela uste dudalako edota nire esku dauden datuak eta Osakidetzaren proposamenean jasotakoak bat ez datozelako, proposamena **berrikusteko edota zuzentzeko eskaera egin beharko dut, aplikazioan bertan dagoen formularioaren bidez.** Kasu honetan, **proposamena berrikusteko edota zuzentzeko eskaera berresten duen dokumentazioa aurkeztu beharko dut**, 3. galderan adierazitako moduan.

#### 5. Zer esan nahi du maila-esleipenaren behin-behineko proposamena onartzeak?

Maila-esleipenaren behin-behineko proposamena onartzeak esan nahi du eskatzaileak berariaz adierazten duela ados dagoela Osakidetzaren proposamenarekin.

#### 6. Zer egin behar dut esleipenaren behin-behineko proposamena behin betikoa izan dadin?

Esleipenaren behin-behineko proposamena onartu ondoren, aplikazio informatikoak berriz ere galdetuko dit maila-esleipenaren proposamena berresten dudana. Proposamena berriz onartu beharko dut, behin betikoa izan dadin.

## 7. Zer gertatzen da iritziz aldatzen badut maila-esleipenaren proposamena behin betiko onartu ondoren?

Eskaera egiteko epearen barruan iritziz aldatzen badut onartu dudan proposamenari dagokionez, **onarpen hori ezeztatu** ahal izango dut. Horretarako, **aplikazio informatikoan, “EZ onartu proposamena” aukera sakatu beharko dut.** Ondoren, proposamena hasierako egoerara itzuliko da, eta hura berrikusteko/zuzentzeko eskaera egin ahalko dut, edo berriro onartu.

## 8. Nola jakin dezaket zein den behin betiko gisa erregistratu dudan eskabidea?

Eskaera-prozesua amaitutakoan, Osakidetzaren maila-esleipenaren proposamenean erregistratutako datuak onartu direlako edo proposamena berrikusteko/zuzentzeko eskatu delako, **gomendatzen da aplikazio informatikoak ematen dituen frogagiriak inprimatzea:**

- **Maila-esleipenaren proposamena onartu izanaren frogagiria** (frogagirian eguna eta ordua erregistratzen dira; beraz, onartutako azken proposamena baliozkotzat joko du sistemak).
- **Proposamena berrikusteko/zuzentzeko eskaeraren frogagiria.**

## 9. Zein dira esleitutako mailaren zenbatekoak eta ordainsari-ondorioak?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen dira mailaren esleipenak ordainsarian izango dituen ondorioak.

## 10. Zer egin dezaket aplikazioak adierazten badit sarbiderik EZ dudala?

Nire datuak (NANa eta pasahitza) aplikazio informatikoaren sarbide-pantailan idaztean ezin **banaiz aplikaziora sartu**, horrek esan nahi du aplikazioaren arabera ez ditudala betetzen deialdi honetan parte hartzeko baldintzak.

Ados ez banago eta uste badut akats baten ondorioz ez zaidala aitortu deialdi honetan parte hartzeko aukera, **datuak berrikusteko eskaera egin dezaket intranetean eta Osakidetzaren webgunean ezarritako formularioaren bidez.**

## 11. Zer egin dezaket aplikazioak EZ badit erakusten maila-esleipenaren behin-behineko proposamena?

Eskaera egiteko aplikazio informatikoan sartzen banaiz, baina bertan **ez bazait agertzen maila-esleipenaren proposamenik**, horrek esan nahi du aplikazioaren arabera ez ditudala betetzen lanbide-garapenaren maila edo aitortuta dudana bestelako maila bat eskatzeko baldintzak.

Ados ez banago eta uste badut akats bat dagoela datuetan, proposamena **berrikusteko/zuzentzeko eskaera egin behar dut aplikazio informatikoan bertan dagoen inprimakiaren bidez**. Inprimakian argudiatu beharko dut zergatik uste dudan lanbide-garapenaren maila bat eskatzeko baldintzak betetzen ditudala, eta hori egiazta dezakeen dokumentazioa erantsi.

#### 12. Zer egin dezaket ados EZ banago aplikazioan agertzen den [maila-esleipenaren behin-behineko proposamenarekin?](#)

Ados ez banago eta uste badut akats bat dagoela maila-esleipenaren behin-behineko proposamenean, **proposamena berrikusteko/zuzentzeko eskaera egin beharko dut aplikazio informatikoan bertan dagoen inprimakiaren bidez**. Inprimakian argudiatu beharko dut zergatik uste dudan nire datuak berrikusi edo aldatu behar direla, detektatutako akatsa arrazoituz eta hori egiazta dezakeen dokumentazioa erantsiz, eta berariaz adierazi beharko dut zer aldaketa egin nahi dudan eskatutako mailaren eta dagokion lanbide-taldearen arabera.

#### 13. Noiz jasoko dut aitortu zaidan lanbide-garapenaren mailaren zenbatekoa eta zein dira zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren 6. artikuluan ezarritako ordainsari-ondorioak?

Berrikusketa eta erreklamazio guztiak aztertu eta ebatzi ondoren, **maila esleitzeko behin betiko ebazpena** emango da, eta dagokion zenbatekoa nominan ordainduko da, kasu bakoitzean ezarritako ordainsari-ondorioekin.

#### 14. Zer gertatzen da, maila esleitzeko proposamena onartu ondoren, niri ez dagokidan maila bat esleitu didatela detektatzen bada, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenean ezarritakoaren arabera?

**Eskaera egiteko epearen barruan** ikusten bada niri ez dagokidan maila bat esleitu didatela, Osakidetzako zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenean ezarritakoaren arabera, onartu dudan proposamenari dagokionez, **nik neuk baliogabetu ahal izango dut** onarpen hori. Horretarako, aplikazio informatikoan, “EZ onartu proposamena” aukera sakatu beharko dut. Jarraian, «Itzuli» botoian klik egin behar dut, eta hasierako pantailan kokatuko nau. Bertan, «Sartu» botoiari emango diogu. Berritoki sartu ondoren, berriz ikusi ahal izango dut proposamena, eta, hala badagokio, proposamen hori berrikusteko/zuzentzeko eskaera egin ahalko dut edo proposamena onartu.

Nolanahi ere, **Osakidetzak edozein unetan ofizioz baliogabetu ahal izango du** onartutako eskaera, baldin eta ikusten badu maila-esleipenean akatsa egon dela, Osakidetzako zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren Lanbide Garapenerako Ezohiko Deialdian ezarritako sarbide-baldintzen eta emandako zerbitzuen arabera.

**15. Nola zenbatzen dira langile finkoentzat parte hartzeko eskatzen den kategoria berean aldi baterako barne-sustapenean emandako zerbitzuak, Osakidetzan plaza lortu aurretik?**

Osakidetzan aldi baterako barne-sustapeneko egoeran lanpostua jabetzan lortu aurretik egindako zerbitzuak, lanpostua lortu den kategoria/lanbide-talde berean, batu egingo dira **eskaera egiten den unean duten kategoria aitortzeko**.

**16. Nola zenbatzen dira aldi baterako barne-sustapenean edo goragoko kategoriako funtzioetan zerbitzuak eman dituzten pertsonak emandako zerbitzuak jabetzan duen lanpostuari dagokion talde profesional/kategoria desberdineko plazan?**

Aldi baterako barne-sustapenean edo goragoko kategoriako funtzioetan emandako zerbitzuak, kategoria horretan plazarik jabetzan lortu ez duten bitartean, plaza jabetzan daukazun **jatorrizko kategorian egindako zerbitzutzat** hartuko dira

**17. Nola zenbatzen dira garapen eskaeraren xede den lanbide-taldean eskatutako lehen 5 urteak osatzeko emandako zerbitzuak?**

Aldi baterako barne-sustapeneko, goragoko kategoriako funtzioetako edo zerbitzu berezietako administrazio-egoeretan emandako zerbitzuak aintzat **hartuko dira aldi hori zenbatzeko**.